

GARRAIOA ETA OSASUNA



Autoen kopurua gora eta gora doa urtero, zaila da aurkitzea autorik ez duen edo erabiltzen ez duen pertsona heldurik. Autoen erabilerak osasunean eragina du.

Nolako kalteak eragiten dituzte autoek pertsonen bizitzakalitatean?



Familikoei galdera batzuk egingo dizkiozue autoaren erabilerak zer eragin duen bere osasunean aztertzeko. Galdera hauek erantzungo dituzue GEZIEKIN.

Kotxean ibiltzeak nola eragiten dizu osasunean?

AMONA		UMORE ONA
AITONA		ASMA
AMA →		ARIKETA FISIKOA EZ EGITEA
AITA		ALERGIA
ANAIA		→ UMORE TXARRA
AHIZPA		OSASUN ONA
		MUGIMENDU GUTXI




Emaitzen konparaketa gelan azaldu beharko duzue. Gelan erantzunen arabera sortuko duzue hormirudi bat termometroekin osatuz.

Osasunerako ona dena = termometro urdinez margotuko duzue

Osasunerako txarra dena = termometro gorritz margotuko duzue

Zein koloretako termometroa nagusitzen da?

Zein ondorio atera dituzue?



Taldeka jarrita, beste hormirudi bat sortuko duzue. Bertan autoaren alde onen eta txarren zerrenda egingo duzue:

ALDE ONAK	ALDE TXARRAK
MARRAZKIA <input type="checkbox"/>	MARRAZKIA <input type="checkbox"/>













Nola atera zaizue zerrenda? Alde onak ala txarrak nagusitu dira?

Zein ondorio atera dituzue?

Zerbait egin al daiteke kotxeen erabilerak eragindako egoera hobetzeko? Zuri zer bururatzen zaizu?
